

IRABAZI ITURRIAK

Aktiboen salmenta gure enpresaren diru-sarrera da, zehazki, aplikazioa deskargatzeko aukera hori saltzean irabazten duguna. Gure programa deskargatzeko oso erraza izango da, harpidetza-prima bat izango du eta bi aukera egongo dira bezeroak deskarga dezaten: hilean 2.5€ ordainketa errepikakor bat egitea hau da, hilero erostea edo ordainketa bakar bat egitea, urteko harpidetzarekin 25€ ordainduz.

Horretaz gain, bezeroak apparekin batera tableta edo armairua erosi nahi baldin badute, gure elkarteei erosiz, portzentai bat guretzat izango da, %20 kasu bakoitzean zehazki.

Gainera, data zehatz batzuetan, gabonak adibidez, nobedadeak aterako ditugu bezero gehiago erakartzeko. Nobedade horietan prezioa txikiagoa izango da, hau da, beherapen txiki bat egingo da erositakoaren arabera.

